

## Arratia-Nerbioi pelota txapelketako finalean lau txapel Zeanurik

11. orrialdea

## Zarzuelea eta Balitzen hioa antzezlanaren Igorren Kultur Etxean

Lan ezagunenak batu ditu Bilboko Masa Coral del Ensanchek *Gran Antología de la Zarzuela*n, ikuskizuna, hilaren 23an, arrastiko zortziretan izango da. Martiaren 2an oster, Korrika Kulturalaren barruan *Balitzen hioa* lana ikusteko aukerea egongo da arrastiko 20:00etan. 12. orrialdea



## Alex Txikon Laila Peak-eko tontorrerako bigarren saiakeran

11. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 180

2013ko zezeilaren 19a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

# Lemoako Udalak ez dau parte hartuko etxe kaleratzeetan

"Etxegabetze sistema bidebakoari aurre egiteko" eta herritarren defentsan Lemoako Udalak protokolo bat ipini dau martxan.

**P**rotokoloan ezartzen danaren arabera, Udalak ez dau etxegabetze prozedurarik bultzatuko ezta eurretan parte hartuko be. Gainera, gai honeetan, epaitegietatik bideratutako prozedurak gauzatzeari uko egiten deusien udal langileak (udaltzainak kasu gehienetan), babestu egingo ditu Udalak. Ohiko etxebizitzearen etxegabetzea sufridu daben herritarrai, etxebizitza eskubidea onartua izan daien, laguntza juridikoa eta informazioa eskeinitzeko deuse Lemoak.

Protokolo honek neurri zehatzak biltzean ditu,

tartean bankuakaz daukan hartu-emonak berrikus-tea. Holan, etxegabetzeak gauzaten dituen eta egiten ez dituen entidade finantzieroen arteko sailkapena egingo dau Udalak, eta etxegabetzeak egiten dituen banketxe horreekaz hartu-emonak etengo ditu.

Gainera, herrian etxegabetze prozedura bat gauzaten dan bakotxean, egunean bertan, Udalak herri eragileakaz batera, etxebizitza eskubidearen alde eta etxegabetzeen aurka, kontzentrazioa egingo dau herriko plazan. 7. orrialdea



Intzuntza auzunea Lemoan.

## DIMA

### Kulturearen I. Planaren aurkezpen publikoa

Dimako Kultura Kontseiluak Kulturearen I. Plana sozializatu behar zala ikusirik, hilaren 1ean aurkezpen publikoa egin eban. Ekitaldira herriko alkarteetako ardudunak eta herritarrak orokorrean konbidautu egozan. Aurkezpena sano arrakastatsua izan zan, 30 lagunetik gora parte hartu eben ekitaldian.

Ekitaldian, Kulturearen Plana azaldu zan, egoeraren diagnostikoa, herriko taldeen zere-rendea, ekintzak: esparruak eta helburuak, orain arte egiten diran ekintzak, ikusten diran hutsuneak eta daukiezan baliabideak, ardatz estrategikoak eta 2013rako ekintzak.

Beste alde batetik, Udalak atararako kultur ordenantza barria be aurkeztu zan. 5. orrialdea

## ARANTZAZU

### Gazteentzako ikastaroak

Autonomia eta ardurakidetzea lantzeako, etxeko beharrak egiten ikasteko tailerra antolatu dau Arantzazun mankomunidadeak. Herriko 16 urtetik 29 urte bitartekoai dago zuzenduta eta hilaren 21ean hasiko da.

Garbiketea, jatekoa egiten edo grifoak eta entxufeak aldatuten ikasteko dabe ikastaroan. 7. orrialdea



LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTSU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABELLOIAK  
URBANIZAZIOAK

Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 · Faxe: 94 673 95 25  
e-posta: obras@construccioneseekin.com

## ARRATIA

### Argazkiak Aratusteetako lekuko

Aratusteetako lekuko diran argazki batzuk ekarri doguz Begitandu sailera eta gehiago be ikusi daitezke gure webgunean. Bertan, irakurleak bialdutako argazkiak be badagoz. Dana dala, gure bildumea osotuteko zuen partaidetzea behar dogu. Zuon argazkiok BEGITU ikusi gura izan ezker, bialdu argazkiok begitu@topagunea.com-era. 8. eta 9. orrialdeak

Ordutegia		
Barkua:	Zapatua:	Domeka:
11:00-14:00	10:00-14:00	11:00-14:00
17:00-21:00	17:00-21:00	17:00-19:00

Logos for Durango and other local organizations are visible at the bottom of the graphic.

# IGITIE

## GLOBALIZAU DAIGUN BURRUKEA, GLOBALIZAU DAIGUN ESPERANTZEA

Goiko esaldi biribil hau, Via Campesinako lelo nagusia da, etenbarik errepikatzen dana 200 miloe baserritarren agoe-tan, asanbladetan, topaketetan, kongresuetan. Orain dala 20 urte hasitako bidean, elikagaien ekoizpenerako, banaketarako eta konsumorako politika zein estrategia sostengarriak defini-duteko.

Gaur egun testuinguru apoka-  
liptiko baten barruan murgiltzen gara: Krisi ambientala, energeti-  
koa eta soziala, derrigorrez kapitalismoaren barruan ekintza aldagaiak zabaldu behar doguz. Modu berean, gaur egun elika-  
dura burujabetzearen inguruan Euskal Herriko herri eta eskual-  
de askotan burutzen dabezan

proiektu eta ekimenak, aldaketa ekonomikoa eta soziala suposa-  
tzen dabe, eta jente askoren-  
tzako enplegu duinta eta bidera-  
garria bermatzen dabe.

Arratian be, baserritar agroeko-  
logikook ez dogu bakarrik neka-  
zal proiektu bat martxan ipini,  
lurralde garapen proiektu bat baino; mundu osoan zehar sor-  
tzean dagoan ereduan, Agroeko-  
logia, eta komenidu da ulertzea zeintzuk diran gure 3 zutabeak:

- Ekologikoa: ingurumeneko ore-  
kea errespetetan dauana, sintesia-  
ko produktu kimikorik erabiltzen ez dauana, bioaniztasuna mantentidu eta garatzen dauana, bertako espe-  
zie eta arrazak erabiliz...

- Sozialki onargarria: Euskal Her-  
riko agroekologiak errentagarritan

sunu ez dau helburu nagusizat euki behar, baserrien desager-  
tzearen aurka jokatu beharra bai-  
no, nekazal eta abeltzainen esku mantentiduteko lurak, lana sortuz. Ekoizleen arteko lehiaren orde-  
z alkarlana eta proiektu kolektiboak sustatu behar ditu.

- Bertakoa, bertakoentzat: sal-  
menta bide laburrak, bitartekari barik edo gitxitik pasetan dana (salmentako etapa desbardin-  
tan gardentasuna). Produktuen freskotasuna eta sasoitasuna se-  
gurtatzen dauana. Ekoizleen arte-  
ko trukaketak (informazio, jakitu-  
ria, produktu...) ahalbidetzen edo erretzen dituana. Euskal Herriko ekoizleen arteko hartu-emonak, baita konsumitzaileakazkoak erretzen eta bultzatzen dituan nekazaritza, muga administrati-  
boak gaindituz.

Horregaitik preminazko ikusten dogu parte hartzea gure inguruan

sortzean diran ekimen interesgarri guztietan, prozesu agroekologiko

honetan geure burua be agroeko-  
logikoa bihurtuteko.



TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**  
**Zezeilaren 18tik 24ra**  
Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.  
**Zezeilaren 25etik martiaren 3ra**  
Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.  
**Martiaren 4tik 10era**  
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.  
Zeberikoak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Goibealde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Goibealde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45eko.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefonoa:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)  
**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Kudeatzailea:** Inigo Iruarrizaga.  
**Erredakzino taldea:** Oihane Barrenetxea, Urtzi Barrenetxea, Ainhoa Duñabeitia, Clara Luja Azpiri eta Irati Urien.  
**Maketazinoa:** Inigo Iruarrizaga.  
**Publizidatea:** Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketea:** Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjuregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).  
**Tiradea:** 6.600 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.600 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

**Babesleak:**



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa





## ZEURE BERBEA

### Gurasoen gozamenerako

Gaur egun berezia da eskolan. Mozorro eguna. Gu, Haur Hezkuntzakoak pailazoz jantzita joan behar gara. Hau da poza! Eskolako ume guztiak Kiroldetik frontoira joan behar gara gure eskolatik. Guraso danak han egongo dira guk prestatutako jantzak ikusi eta txalotuteko.

Arrastiko 15:00etan danok prest gagoz: mozorroak jantzita eta aurpegiak margotuta. Urten gara eskola txikiko atetik eta... hau da eguraldi makurra!! Izugarriko hotza, haize handia eta euri zaparradak edonoz. Apur bat itxaron dogu euria gitxitu arte. Hotzak nago! Andereñoari gure berokiak lotzea ahaztu jako. Aurrera jarraitu behar dogu. Guraso bi etorri dira bakotzak bere alabea aterkiagaz tapetako. Espero dot amak leku ona hartu izana erakustaldia ikusteko. Andereñoak abestu egiten dau giroa apur bat animau guran. Ai, ene!! Beste euri zaparrada bat,

haize bortitz eta guzti. Eskolako aterpean guraso alkatetako batzuk dagoz eta guraso bi horreeri ez deusez aurrera jarraitzen itxi. Ea behingoz ailegetan garan!

Gure jantza egiten dogun birtartean han ikusi dot amatxo niri argazkiak egiten. Pozik eta asko disfrutetan dagoala dirudi. Amaitu dogunean jezari egin gaitue eta berokiak ipini. Bustita nago, baina ez dau ardura, sano ondo pasetan nago. Maila guztietakoak amaitu dabezanean euren jantzak eskolara itzultzea geratzen da.

A ze zortea! Orain ez dau euririk egiten. Baina giroa hotza eta haizetsua izaten jarraitzen dau.

Barriro be, andereñoari gure berokiak lotzea ahaztu jako. Arinago heldu gara oraingoan eskolara, baina, gure gurasoak argazki sesino bat egin deiguen, kanpoan geratu behar izan gara tartetxo batez. Mesedez, hau da hotza! Amaitu egizu azkar amatxo, barrura joan gura dot eta!

MARIAN IGIÑITZ

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Sutea



Etzeko leku honetan janaria prestatzeko sutegia dago eta bestelako tresneriaz horniduta da. Arratian hainbat erara jaso dogu: eskaratz, eskatz, subate, subete, sugete, sute, suete eta suite. Eta agoskatuta: eskátza, subétie (Ubiden), súde (Igorren), suitia (Zeanurin). Batuaz, barriz, sukalde esaten da. Bestalde, badago esamolde bat: "sutiak be hartu ezinik", personea bildurtuta eta ezin egonean ikusten danean erabilten da.

## ERETXIA

### Ordainketea

Orain dala aste batzuk, helikoptero bidezko mendi-erreskate bat ikusi neban. Persona bat talde-aldendu eta galdu egin zan, zapatu arrastia zan eta eguraldi zakarra egiten eban, iragarrita egoan moduan: haize gogorra eta edurra ugari.

Eszena lekua ez zan urrutikoa, ez zan Europako Pikoetan edo Pirinioetan gertatu, Gorbeian gertatu zan, sano hurreko inguruan.

Momentu haretan alerta zein koloretakoa zan gogoratu gura izan neban, horia? ...ez, uste dot gaur laranja dala... ala gorria? Eta honen aurrean zalantza gehiago etorri jatazan burura, federatuta ete dago? Asegururik ba ete dauka? ...eta azkenik itaun gakoa erreskatea kobrauko deusie?

Gogoan daukat alerta metereologikoa dagoan egun baten Gorbealara joatea ardurabakkeria dala, baina erakunde ugari espazio naturalak bisitetara konbidatzen gaitue. Azkenengo urteotan, mendiak erakartzen dauan jente kopurua gora doa etenbarik eta hurbilpen hau gertatzen da askotan behar diran ezaguera eta formazino barik. Logikoa danez, arrazoi honeengaitik eta masifikazinoagaitik erreskate taldeen parte-hartzeak gehitu egin dira, istripuak dirala eta.

Erakunde horreek ez dabe askotan esaten mendia arriskutsua izan leitekela, baina arinkeria baten ondorioz istripu bat gertatu ezker, erreskatea kobrauko dabela jakinarazoten dabe, ordaindu behar izatearen bildurraren prebentzinoa eraginkorra dala esanez. Mendizaleok konbenziduta gagoz mehatxua ez dala istripuak sahiesteko bidea, formazinoa eta informazioa baino. Okerrago oraindino, uste dogu ordaindu behar izatearen bildurra dala eta, leitekena dala istripua izan dauanak larrialdietan.



### JOSEBA UNDURRAGA BIDASOLO

Ganzabal Mendi Taldeko Presidentea

rako deia atzeratzea, erreskatea berandutuz eta egoera gehiago larrituz.

Mendiak poza emoten dau eta sensazioa piloa bizi arazo, baina batzuetan modu krudelean, gogorarazo egiten deusku berarenganako errespetua sentidu behar dogula, bildurrik ez, baina errespetua bai.

Historikoki federazioak eta mendi taldeak emon dabe kirol honetarako formakuntza, baina gaur egun errealidade hau asko aldatu da. Alde batetik, talde-aldatu batzuentzat, mendi taldeak federadu karneta gestionetako erreminta bat baino ez dira eta formazino ikastaroak ez dira ugari, jentek ez dau parte hartzean eta. Beste alde batetik, mendira sarri joaten dan edonork astakeria galantak ikusten ditu, esperientzia eza edo txarto ulertutako ausardiagaitik egindakoak, pozik dana ondo amaituten bada eta aieneka holan ez bada.

Mendizaleok ez dogu uste bildurra sartuta mendiko istripuak gitxitu egingo diranik. Saiatu behar gara, mendira joaten diranak, lehenengo aldia izanda be, menditik segurtasunez mobidu daitezala eta horretarako erakunde publikoak politika orokor prebentiboak eta ez zigortzaileak egin beharko leukiez.

Horregaitik mendi-erreskateak kobretaren kontra agertuten gara.

\*Erredakzinoan itzulita

**BATZ**  
BATZ, S. KOOP.  
Tornea auzoa, 32  
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez,  
euskeraz eginez

Enbata  
Batzen gaitu

**MONDRAGON**  
INDUSTRIAL CORPORATION



## LUMATUTEN



MAITE ARTABE

## Papeloia

Oingoan bizitzako papeloia tokau jakuna, aizan! Ondotxo dakina papeloi honen barri. Inguruko gehienok gagozana-ta pelikula berean bueltaka. Kamara aurrean bezain konplikaua dona deskantsu-uneetan. Horregaitik seguru asko, zer pentsau emon jeustana Leire Bilbaoren poesia zatitxo honek: *Inork ez digu esaten nola izan gure amen ama nola eutsi bizia eman zizuten hezurrei hondarra eskuan bezala lurrera jausi ez daitezten.*

Gogorra dona zaindari papela, berez; baina gure papeloiak Katharine Hepburn-ek baino Oscar gehiago merezi jozana, pelikula berean papel antagonikoak jokatzea ez dona makala-ta: gure amak seme-alaben zaindari baina gurasoen zerbitzari izateko hezi ginduezana-ta; gainera andra enpoderauak arlo batzuetan eta gurasoen zerbitzari beste batzuetan, zelan buztartzen dozana pa-

pelok? Konplikaua eszenarik eszena papela aldatzea.

Hobeto andrazoro gazbako bat bahintza, baina ez haiz; ez horixe; eta papel guztiak egoki eutsi gurean arrakalak be nabari dozana paparrean.

Badakina, holantxe izan dona euskal tradizioan: amak jeukiena seme-alaben gaineko boterea; eta, noski, gure amak horrerik eutsi gura jeutsiena zahartzaroan be. Beste hainbatetan legez tradizioa traizino bihurtuten jakuna honetan be. Saiatu gozana, barrez, hainbat kate apurtzen eta hainbat tradizino kolokan ipinten eta orain gure amak exijiduten jeuskuenan zerbitzu honeri men egitea nekagari suerteteaz gain mingarri be suertetan jakuna.

Insumisino moduren bat ballegona... baina geure bameko ejerzitioa estaduarena baino boteretsuagoa dona, antza. Hain gozana ondo heziak ze!

Halanda guzti be, ez egina ahaztu bizitza sano aberats eta ugaria dala; une oro gogoan izan beharra jagona gauza guztiak jeukienala bere alderdi komikoa. Ez jagona txiste bat baino gauza bihozberagorik. Nik pentsau jonat zelan bideratu gazi-goxo hori: komikia egitea pentsau jonat, gero pelikulea izango dona komikia. *Urte berri on amona!* Izango dona titulua, Telmo Esnal eta Asier Altunaren baimenagaz eta protagonisten perfilak be pentsautu jeukazanat. Oin gidoirako pasadizoak falta jatazana. Kontau gura badeustazana, hemen daukone nire posta elektronikoa: maiteartabe@hotmail.com. Neureak be ez dozana gitxi baina holan piper gehitxoago eukingo jona.

Papeloirik onenari Euskal Zaindarien Oscarra.

## ZERTZEAN



IRATI BERNAOLA

## Gaia jarrita: "Nahikoa da!"

1

Oin dala urteak sortu jakuzan hainbat duda ta galdera esan joskuen hasi egin zala ekonomi gainbehera urteak aurrera joan ahala sistema joan da txarrera ordutik guztiz aldatu egin da inguruko egoera.

2

Ez dogu oso urrin ikusten Greziako erretratua inguruko edozein langile izan lei kaleratua hezkuntza publikoa oztopatu ta osasun pribatua non gelditzen da eurek dinoen ongizate estatua.

3

Etxebizitza eskubidea da arazo nagusia abiadura handien doa gorantza langabezia politikari korruptoen hitzak dagoz gezurrez jantzia guk ordaindu behar al dogu baina gobernu honen krisia?

4

Etxebizitza, "desauzioak" oinarte izan dire "tabu" baina arazo soziala dala eduki behar dogu klaru bankuek sortu daben krisia ordainduten gabiz karu ez dogu onartzen ta ez gara izango gu Kutxabank-en esklabu.

5

Etxebizitza osten datoz beste hamaika desgrazi gure inguruen entzuten dire hainbat ta hainbat notizi inposizio ta murrizketak inork ez ditu merezi Euskal Herrien nahi dogulako aske lan egin ta bizi.

6

Sistema honi buelta emoteko ezinbestekoa zara danok batera jardun ezker alternatiba bat bada gazte, emakume, gizon zein heldu danok beharrezko gara kalera urten ta aldarrikatu esateko nahikoa da!

## BEGI TXINDORRA

Ur gehiagorik iruntsi ezin dauan esponjea modukoa ei da gure lurra, aspaldiko urtailarik euritsuena eta zezeileko lehengo hamabostaldiko tenporaleko eurik hartu ostean. Errekak urten dira leku batzuetan, baina kalteak ez dira handiak izan. Orain baina, lurrak ezin dau ur gehiagorik hartu, eta desegiten da eta narra egiten dau. Luizi eta munurratu asko dagoz gure kamino batzerretan horren lekuko.

Oruen, berbarako, kaminoa zarratuta egon da egunetan munurratu bategaitik. "Bariku goizean mobidu zan lurra, narra egin, baina zapatu goizerako garbi egoan kaminoa. Dana dala, astelehenean barriro jausi zan eta eguenerarte egon dira makinak lurra kentzean. Gainera eurik kaminoan arrakala bat egin dau" azaldu deutso BEGITURI AUZOKO BATEK.

Lurrak ezin dau gehiago. Ai! Atsegina da euri txikia, laztana lurrrarentzat; baina asko danean, urak be, min egiten badaki. Errekak handi datoz orain, eta eguzkiak bakarrik baretu ahal dau uraren haserre. Lurrak iada ezin dau jasan ezta euri txikiaren laztana.

Argazkia: Jose Mari Martinez.



**Gorosti**  
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzeta  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisl.com

**agoa** Ortodontzia  
Inplanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aideroa  
Odontologia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39

Nahigaita Zerbaita 110  
R.P.S. 21/06

**Olaetxe**  
OPTICA ZENBETUA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gixitua
- Begiko tentsinoa
- Lentillen adaptazinoak
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es



## ARRATIA

### Arratian Lan eta Bizi bilgunea aurkezteko batzarra Igorren

#### Erredakzioa

Eskualdeko eragile sozial, sindikatu eta norbanakoen bilgunea da Arratian Lan eta Bizi, bizi dogun egoera sozioekonomiko latzaren aurrean eragiteko sortutakoa. Bilgune hau aurkezteko hilaren 27an batzar zabala egingo da Igorren Kultur Etxean, 19:00etan.

Euren aldarrikapenen artean, kalidadeko enplegu duina; etxebizitza izateko eskubidea; osasun-

gintza eta hezkuntza publiko, do-bako eta unibersalak; babes sozial duina eta garraio publikoa dagoz.

Sufriduten gagozan eskubide galerearen aurrean "alternatibak egon badagoz, eta burruka egiteko prest gagoz, erasoari erantzuteaz aparte personak erdigunean ipini eta lanaren eta aberastasunaren bidezko banaketan oinarrituko dan eredu barria ereigi gura dogu" dinoe Arratian Lan eta Bizi bilguneok euren manifestuan.

## DIMA

### Kultura eta ordenantzak

#### Erredakzioa

Ze kultura lagundu behar dogu Diman? Itanari behar moduko erantzunak topetako sortu da Diman Kultura Kontseilua, alderdi politiko, kultur alkarteetako ordezkari eta norbanakoez osotuta. "Kontseiluak 2012 urtean hausnarketa sakona egin dau gure herrietan zein eratako kultura bultzatu eta bizkortu behar dan proposatzeko: kultura konsumistea ala kultura parte-hartzailea, ikusteko espektakuluak ala espektakulua herrikoak emotea, geu izatea protagonista; telebistan agertzen dan kultura ala gure bizimoduagaz loturea daukan kultura indartu behar diran" dinoe. Bestetik, kultura berbeagaz zer ulertzen dan be aztertu dabe; hortik, kul-

turea gizatalde batek bere bizitza pribadu zein publikoa antolatzeke erea hartu da kulturatzat. Herriko kulturearen egoerearen diagnostikoa be egin da, indargune eta hutsuneak detektauz. Azkenik, datozan 4 urtetarako ildo estrategikoak landu dira.

Hausnarketa honen ondorioz, Kulturearen I. Plana burutu eta 2012ko abenduko plenoan onartu egin eban Udalak.

Kultur ordenantza barria be aurkeztu zan, besteak beste, norbanakoantzat euskera ikasi eta kultureari buruzko ikastaroetarako diru-laguntzak zehatz arautzen dituan. Ordenantzearen kopia bertaratutako guztiai banandu jakien eta dirulaguntzak eskatzeko prozedura azaldu zan.

Kulturearen Kontseiluak 2013 urtean zehar egingo diran ekintzen balorazioa be egingo dau, eskuarteant ditan erispideak erabiliz. Urtearen amaieran balorazio hori kontuan hartuz, hurrengo urteetarako ekintza barriak proposatuko ditu.

## IGORRE

### Arlo soziala eta urigintzarako diru gehiago aurten

#### Erredakzioa

Bildu eta Igorre Danontzat alderdien sei aldeko botogaz onartu ziran Igorreko 2013ko aurrekontuak. Aurrekontuok Udaleko batzordeetan landu ziran eta ogasuneko batzordean adostu dira taldeen ekarpenak. EAJ-PNVk kontra bozkatu eban. Udalaren aurrekontua 2013rako 4.405.091 eurokoa da.

Egoera ekonomikoa kontuan izanik "zerbitzuak ez murriztea dauka helburu" aurrekontu honek Udal iturrien arabera. 2013an arlo sozialean diru gehiago izango dau Udalak eta kirol eta kultura taldeen-

tzako dirulaguntzak be igon egin dira. Urigintzan inbersinoak egiteko 810.000 euro egingo dira.

#### Bigarren aldiari

Zezeilaren 4ko plenoan onartutako aurrekontuak onartutako, pleno bi egin behar izan dira. Lehenengo urtailaren 28an egin zan. "%98ko adostasuna izan baeban be, Udaleko langileen soldatak KPlaren arabera eguneratzearen ebatzia aurrekontuetan sartzea ez eben ondo ikusi Igorre Danontzat eta EAJ-PNVk" Igorreko Udalaren arabera. Horregaitik bigarren pleno bat behar izan zan.

## LEMOA

### Igaz baino diru gehiago izango da 2013an

#### Erredakzioa

Lemoak 2013rako aurrekontua onartu eban zezeilaren 14an, horretarako egin zan Osoko Batzar Berezian. Hiru miloe eta erdiko euroko aurrekontua da hau (3.452.980,20 €), igazkoa baino % 4,22 handiagoa. Aurrekontua Bilduren aldeko bost botoakaz, EAJ-PNVren bost abstentzino eta PSE-EEren kontrako botoagaz atera zan aurrera.

Urri lehenengoan auzo batzarraz hasitako prozesu baten amaiera izan zan bozketea. Herriarren proposamenak jasoten ebazan aurrekontu proiektuari urtailan, EAJ-PNVk bederatzi zuzenketa partzial sartu eutsazan eta bozketea baino 48 ordu lehenago PSE-EEK osoko zuzenketea sartu eban. EAJ-PNVk aurkeztutako 9 zuzenketa bozkatu ziran Osoko Batzar honetan eta danak atera ziran aurrera Bildu eta EAJ-PNVren boto eta PSE-EEren abstentzinoagaz.

Bilduren arabera, aurrekontu honeri esker, herria hobetuteko obrak bultzadea izango dabe, ia miloe erdiko diru partidea dago eta, igaz baino % 53 gehiago. Kultura eta euskera be bul-

tzatuko dira eta Memoria Historikoaren lanketarako 6.000 euro bideratuko dira.

#### Aretoa beteta eta tensinoa mahaian

Publikoak aretoa bete eban bozketa egunean eta bitan eten egin behar izan zan plenoa, aholkularitza juridikoa eskatzeko. Izan be, gai-ordenean zuzenketa udal-terean sartu ziran ordenaren arabera egozan bozkatzeko baina PSE-EEK lehenengotik osoko zuzenketea bozkatez eskatu eban eta EAJ-PNV ados egon zan. Legea konsultau ostean, mahairen presidentziaren kompetentzia zala ikusi zan eta alkateak ordena mantentidu eban.



Aurrekontuetako plenoa.

## ARRATIA

### Fiare banku etikoa aurkeztuko dabe Igorren

#### Erredakzioa

Banku askoren jokaerea ez dala etikoa ikusi da aspaldi honetan, etxe kaleratzeen kasuetan, berbarako. Dana dala, banka etikoa be egon badago eta Cristina de la Cruz eta Itziar Sobrinok hilaren 28an, "Fiare banku etikoa" aurkeztuko dabe Igorreko parrokiako lokaletan.

"Persona eta erakundearen sarea dan aldetik, Fiare uste sendo batetik abiatzen da: ekonomia jardueraren ez dala neutrala. Ebatzi ekonomiko guztiak, ebatzi etikoak dira; uste sendoak eratzten daben marko baten barruan gauzatzen dira, eta daukiezan ondorioak batzuen aldekoak eta beste batzuen kontrakoak izaten dira" dinoe Arratiako Eleizako iturriak. Hori dala eta, gero eta persona gehiagok, bankuak euren aurrezkiak modu etikoan erabiltzea gura dabe; hau da, hau da perso-

nak helburu izatea eta ekonomia bitarteko bat baino ez, eta ez alderantziz.

#### Herri bankua

Fiare "mota guztietako produktu eta zerbitzuak eskeintzen ditu, bere ezaugarriak galdu barik: irabazteko asmorik eza, demokrazia kooperatiboa eta behetik gorantz ereigita egotea" Arratiako Eleizaren iturrien arabera. Banku jarduerari jagokonean, Fiare Banca Popolare Etica Italian diharduan kreditu kooperatibearen agentea da eta Batasuneko Gordailuen Berme Funtzari atxikuta dago.

Beste banku etiko batzuk, Triodos Bank eta Coop57 dira.



## ARRATIA

### Ubidetik dator Korrika

#### Erredakzioa

Korrikaren ibilbidea emon dau jakitera AEK-k. Arratiatik martiaren 21ean, egunez, pasauko da. Goizeko bederatziak aldera sartuko da Ubidetik eta Lemoatik urtengo da. Aspaldiko partez, Dimatik be pasauko da Korrika 18. Hauxe da Korrikak egingo dauan ibilbidea eta ordutegia: Ubide 09:07; Zeanuri 10:35; Areatza 11:09; Artea 11:27; Arantzazu 11:59; Igorre 12:07; Dima 12:13; Igorre 12:43; Lemoa 13:11.

Hiru izango dira hamabostaldi honetan Korrika Kulturalaren barruan Arratian egingo diran ekitaldiak: mendi ibilaldia hilaren 24an, Lipduba Karabie Gaztetxean eta Balitzen Hioa antzerkia martiaren 2an.

#### Mendi ibilaldia

Ganzabalek antolatu eta eskolak eta guraso alkarteak ekimenagaz bat egin dabe. Hilaren 24an izango da eta partaideak Indusin bertan batuko dira 09:30ean. Industitik Indusira izango da ibilbidea. "Ez da gatxa izango, umeak egiteko moduko hiru orduko ibilbide lasailasaita" dinoe AEK-tik.

#### Lipduba Karabie Gaztetxean

Lemoako Karabie Gaztetxeok, barriz, Korrika Kulturalaren barruan, Esne Beltzaren kantuagaz lipduba egiteko deialdia luzatu dabe. Zitea Gaztetxean izango da arrastiko bostetan eta lipduba grabau ostean, afari bonoa eta kontzertuak egongo dira. Kontzertuok On eta Nik Khaos-ek eskeiniko dabez eta azken honek bere azken diskoaren aurkezpena egingo dau. Gaztetxeok ezinbestekotzat jotzen dabe ahalik eta jentetik gehiena batzea, eta ideak be eroateko eskatzen dabe.

Egun berean, 20:00etan, Balitzen Hioa ikuskizuna egongo da Igorren. Informazio zehatzagoa zenbaki honetako kulturako orrietan dago.

#### Korrika teknologia barriak

Aking enpresek sakelako telefonoetarako Korrikaren aplikazioa garatu dau. Aplikazio honetan Korrika Kulturalaren agenda, Korrika non dagoan jakiteko pantailea, errealidade aregotuaren jokia eta Korrika 18ren ibilbidea egongo dira esku-ragari, besteak beste. Google Play (Android) eta App Storetik (Apple) deskargau daiteke doban. Gainera, Korrikak Korrikaklip bideo laburren lehiaketea abiatu dau. Lehiaketa honetan Korrika 18ren kantaren bersino, koreografia, lipdub, flashmob, cover, jantza eta abarren bideoak hartu daiteke parte. Bideoak gehienez 5 minutu iraungo dabe eta ZIP formatuan bialdu behar dira korrikaklip@gmail.com helbidera martiaren 12a baino lehen.

## IGORRE

## Udalak aurrekontuak azalduko deutzaz herritarren asanbladeari Igorretarren Batzarrean

### Erredakzioa

Igorretarren Batzarrean lehenengo saioan, alkateak onartu diran aurrekontuen gaineko azalpenak emongo ditu. Baita herritarrek proposatutako bost gairen inguruak be.

"Herritar guztiak zabalduko espazioa" da Igorretarren Batzarra Udalaren arabera eta zezeilaren 21ean alkartuko da lehenengoz, 19:00etan Kultur Etxean. Bertan, "Udalean dagozan gaien gaineko informazioa zabalduko da" eta egitasmoen inguruan berba egingo da. "Epe luzera zelako herria gura dogun aztertuko da", baita herritarren lehentasunak. Urtean beste bi edo hiru batzar egiteko asmoa be agertu dabe Udaletik.

### Herritarren partaidetza-sistema eratuta

Azkenengo urte biotan Udala eta herritarren arteko partaidetza

sistema bat ipini dabe martxan Igorren. Auzo batzarrak, aurrekontu parte-hartzaileak, urigintzako gaien inguruko azalpenak eta alkarteak hartu-emonak egin ditu Udalak. "Harago joateko" sortu da Igorretarren Batzarra, Udalak jakitera emon dauanaren arabera.

Batzarren bidez ezeze, igorretarrak proposamenak egin ahal dabez info@igorre.net helbide elektronikoan edo herrian dagozan buzoietan be.



Igorre.

## BEDIA

## Alfus burrukan

### Erredakzioa

Hitzarmena negoziatuko mobilizazioetan jarraituten dabe Bediako Alfuseko beharginak eta hilaren 18 eta 19an lanixteak egingo dabez. Astelehenean, gainera konzentrazioa egin eben Bilbon, FCCren egoitzan. Eguna zehaztu barik baina 18aren astean bilera bat agindu deutzela enpresek dino Tamara Martin LABekoak. Astelehenean lanixteak egiten dabez Alfuseko beharginak urtailaren 21etik.

Alfusen jaubea dan FCCren egoitzaren aurrean 18an egin eben konzentrazioa ez da beharginak Bilbon egin daben lehenengoan. Izan be, urtailaren 11n, beste konzentrazio bat egin eben Cementos Lemonaokoak batera.

### Akordioa lortu arte

Akordiorik lortu ezean mobilizazioak jarraituteko asmoa daukie Alfusekoak. Alfuseko beharginak hitzarmen barik dagoz 2011ko abendutik, "lan ezegonkortasun handiagaz". Langileak enpresak "lan baldintza oso gogorak"

## BEDIA

## Lau ikastaro

### Erredakzioa

Udalerriko bizilagunak eskatuta, Bediako Udalak kultura, jolas, kirol eta prestakuntza handitu dau lau ikastaro barriri esker: Barreterapia, Defensa personala, Patinajea-Rollerrak eta Elikagaien manipulazioa. Ikastarook martia eta maiatza bitartean egingo dira. Elikagaien manipulazioaren gainekoa, barriz, egun bitan egingo da, martiaren 16an eta 23an. Ikastaroetan izena emoteko epea hilaren 22an amaituko da.

### Ludotekea

Beste alde batetik, zezeilaren 4an, ludotekako zerbitzua ipini zan martxan Bediako Udal liburategian. Zerbitzua dobakoa da, begirale bat izango dau eta astean hirutan funtzionauko dau: martitzen, eguzten eta barikuetan 17:00etatik 19:00etara.

ezartzeko mehatxu egiten deutzela baina esan barik zeintzuk izango diran baldintzok salatuten dabe.

## ZEBERIO



Lorentza Uria.

## Lorentza Uria hil da

### Erredakzioa

Ariltzako (Zeberio) Lorentza Uria hil zan zezeilaren 5ean 106 urte bizi ondoren. Lorentza ezaguna zan BEGITUREN irakurleentzat. Izan be, 106 urte bete zituanean horren barri emon eban aldizkari honek eta bere bizitza be kontau euskun Lorentzak 2010eko zementarian. Auzkorta baserrian bizi zan Lorentza bere neba Julian, alaba Felisa eta Migel suinagaz.

Hileta eleizkizunak Olabarrietako Santo Tomas parrokian egin ziran hurrengo egunean.

Instalazio industrialak · Mantenimendu industrialak · Tresneria eta kontrola Merkataritza estalabezimenduen instalazioak · Etxebizitzaren erreformak edo berrikuntzak · Antena instalazioak  
Mantenimendua · TDT · Telekomunikazioak · Herriko argiak · Potentziadun koadroak



Arratian kultura bultzatzen

**indar**  
instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-3/4 · 48.142 Artea (Bizkaia)  
Tel.: 94 655 47 19 · Fax-a: 94 404 06 70 · E-posta: indarsl@indarsl.es



## ARRATIA

# Hamaika mila kilotik gora jaso dira edukiontzi marroian lehenengo hilean

### Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak landara eta barazki jatorria daukien hondakinen bilketa zerbitzuaren informazio kanpainak 1500 familia baino gehiagoren atxikimendua lortu dau hilabete bitan, mankomunitateak prensa ohar batez jakinarazo dauan araberako. Bilketa datuak jagokonez, "astez aste batutako kilo kopurua handitzen joan da eta zerbitzuak 11.000 kilotik gora bildu ditu bere lehenengo hilebetan". Abian da ekoizle handi eta ostalaritza-dendak zuzendutako bigarren fasea.

Bizkaian bosgarren edukiontzia martxan ipini dauan lehen eskualdea da Arratia eta mankomunitatea baikor agertu da izandako emoitazakaz. "Kanpainak ekoizle handiak amaituko dala kontuan hartuta, aitatutako kopuruak gora egin daie nabarmen. Zerbitzu honegaz zabor-

tegira doan hondakin kopurua gixitu, ingurumenari kalte gixiagor egin eta kostu ekonomiko txikitzea lortu da" dinoe. Ekoizle handiak beren beharrianen araberako edukiera desbardinako ontziak jasoko ditue.

### Atxikimendu gehiagoren bila

Zerbitzu honetan izena emon gura dabenak Mankomunitate hurreratu daitezke izena emon eta materiala jasotera, goizeko 08:00etatik 15:00etara. Bestela, udaletxeetara joteko aukera daukie bulego orduetan. Igorreren kasuan izen emotea eta materiala jasotea mankomunitateak Elexalde kalean daukan egoitzan egin behar da. Bediako bizilagunak arrastiz liburutegira jo daikie izena emotea eta materiala jasotera. Material hau, 10 litroko ontzia, 150 boltsa biodegradagarri eta kalean ipini diran edukiontzi marroiak zabalduetako giltza da.

## ARANTZAZU

# Gazteak euren autonomia jorratuko dabe

### Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasan Zerbitzuak etxeko beharrak egiten ikasteko tailerra antolatu dau Arantzazun, autonomia eta ardurakidetzeara lantzeako. Arantzazuko 16 eta 29 urte bitarteko neska-mutilak dago zuzenduta eta zezeilaren 21etik martiaren 25era izango da. Hamar saio guztira astelehen eta eguenetan 17:00etatik 19:00etara.

Garbiketea eta jatekoa egiten, grifoak eta entxufeak aldatuten edo botoiak josten, beste gauza batzuen artean, ikasiko dabe ikastaro honetan gazteak. Helburua gazteak danetik egiten jakitea da,

autonomoak izateko eta estereotipoak ez lotuteko.

**ETXEKO BEHARRAK EGITEN IKASI NAHI?**  
Gazte, joratu zure autonomia eta ardurakidetzat!  
Gazteak, joratu zure autonomia eta ardurakidetzat!  
ARANTZAZUN (Bardintasan Zerbitzuak)  
Informazioa eta izena emateko  
94 631 37 75  
Bardintasan Zerbitzuak

## LEMOA

# Etxe kanporatzeen aurrean Udal protokoloa onartu da



Lemoan Udalak ez dau parte hartuko etxegabetzeetan.

### Erredakzioa

Zezeilaren 7ko udalbatzak etxe kanporatzeen kontrako protokoloa onartu eban Bildu eta EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta abstentzino bategaz (PSE-EE). Protokolo hau abenduan ago batez onartutako mozino baten oinarritzen da. Hori abiapuntutzat hartuta Udalak ongizate batzordean Udal protokoloa diseinatu dau.

"Neurri zehatzak biltzean dituan protokoloa da, eta helburu bi ditu: batetik egoera larri honen aurrean dagozanai laguntza praktikoa emotea eta, era berean, etxegabetzeen sistema bidebakoari aurre egitea" Udal iturrien araberako.

Lemoako Udalak gainera, etxegabetze danak bertan behera ixteko eta herritarren eskubideen defentsa bermatzeko legedia aldatutea exijiduten dau eta "gai honetan bankuak eta Espainiako gobernuak daukien jarrera ozen salatu".

Udalak kaltetuen eskura telefono zenbaki bat eta helbide elektronikoko bat ipiniko ditu, egoera hori sufridu edo sufriduteko arriskuan dagozanen gaineko informazioa jasoteko. Ekinbideak martxan ipinteaz alkatea arduratuko da eta "egoeren larritasuna ikusita, jarraian alkatearen kon-

taktua jartzea proposatzen dogu. Holan, hartu-emonak zuzenak izan daitezke. Hala eskatzen daben kaltetuak, diskrezino osoa izango dabe Udalaren aldetik".

Udalak bankuagazko hartu-emon bidea zabalduko dau eta kaltetuen proposamenak bideratuko ditu.

### Udalak ez dau parte hartuko etxegabetzeetan

Protokoloaren araberako, Udalak ez dau etxegabetze prozedurarik bultzatuko ezta eurretan parte hartuko be. Eta gai honeetan, epaitegietatik bideratutako prozedurak gauzatzeari uko egiten deusien udal langileak, udaltzainak kasu gehienetan, babestu egingo ditu Udalak.

Laguntza juridikoa emongo deutse Lemoak hau sufriduten dabenai.

Bankuakaz hartu ahal dituan neurriak hartuko dau Lemoako

### "Etxegabetzeen gaiagaz

daukien jarrerearen

arabera kredituak

berrikusi egingo ditu

entidadeakaz Udalak"

Udalak. "Udalak, Kutxabank-eko partaide dan heinean, bereziki exijiduten deutso entidade honeri, etxegabetzeak bertan behera itxi dagiazan denpora mugabakoan eta epaitegietan martxan dagozan prozedurak be bertan behera ixteko. Kutxabank-en barne egitura dagozan aukera guztietatik bideratuko deutso Udalak, exijentzia hau" onartutako protokoloaren araberako. Gainera "etxegabetzeen gaiagaz daukien jarrerearen araberako kredituak berrikusi egingo ditu entidadeakaz, baita Udalak daukazan hartu-emon instituzionalak, ekonomikoak eta akarlana be". Herritarrek jakinaren gainean eukiko ditu Udalak banku, kutxa edo kooperatiba bakotxaren jarrera zein dan zabalduz.

### Alkarlana beharrezkoa

Lemoako Udalak etxebizitza eskubidea bermatzeko ezinbestekotzat jotzen dau instituzinoen eta eragileen arteko alkarlana. Momentuz herrian ez dago gai hau lantzean dauan eragile konkreturik.

Herrian etxegabetze prozedura bat gauzatzen dan bakotxean, egunean bertan, Udalak herri eragileakaz batera, etxebizitza eskubidearen alde eta etxegabetzeen aurka, kontzentrazioa egingo dau herriko plazan.

**INCOESA**  
Tel. 94 631 32 75  
Faxa. 94 631 37 66  
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu  
Bixarra egin eta txukunduten dogu  
Elexalde, 20 48.140 Igorre Rober ☎ 630 743 543 Manuel ☎ 661 848 793

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 7. 48140 Igorre (Bizkaia) Telefono: 94 632 64 75

**\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia) ☎ 94 631 92 00



**ARATUSTEAK**

# Aratusteak aterpean

**Erredakzinoa**

Sasoilun eta gris honetan, Aratusteak jai herritarrek eta koloretsuak dira. Euria eta hotza, errekak gainezka... eskola-umeak aterpean ospatu zituen jaiok gehienetan. Ha ta guzti be, BEGITUK ospakizunetako testigantza grafikoak jaso ditu Areatzan, Artean, Bedian, Diman, Igorren, Lemoan, Zeanurin eta Zeberion. Gure webgunean, [www.begitu.org](http://www.begitu.org)-en, gehiago dagoz ikusgai.



Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerea eta kulturearen alde

**Hamabostero Begitu zure etxean**

**begitu** arratia ubide zeberio **10 urte.**

**Egin zaitez zeu be Begitu-lagun**

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.  
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€



Moztu eta bidali helbide honetara:  
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48142 Artea







## FUTBOLA

## Luis Prieto Lagun Taldekoak Iruñara martiaren hasikeran

## Erredakzioa

Luis Prieto lagun taldekoak Iruñara joango dira martiaren 2an, Athleticen Osasunaren kontra jokatuko dau-eta egun horretan arrastiko 20:00etan. "Oraingoan Lagun Taldeko bazkide askok, bihotza bananduta eukiko dabe: alde batetik, Jose Luis Mendilibar dalako Osasunaren entrenatzailea; eta beste aldetik, Athletic zaleak diralako. Bazkide askok hartu-emon estua daukie Osa-

sunaren entrenatzaileagaz Arratia futbol taldeko entrenatzailea izan zanetik" dinoe taldekoak.

Izena hilaren 24a baino lehen emon behar da ohiko lekuetan.



## FUTBOLA

## Arratia talde biak gol zaparradea sartu dabe

## Clara Luja Azpiri

Atzenengo hau jardunaldi ona izan da Arratiako futbol taldeentzat. Lurraldeko Lehenatasuneko Mailan dagozan mutilak 3-0 irabazi eutsien Larramendi "A" taldeari. Partida zezeilaren hamaseian izan zan, Igorreko Urbietan zelaian, arrastiko lauretan. Aurreko asteko partiduan ez eben hain emoitza ona izan, husna bardindu eben eta partidua Indautxu taldearen kontra, bilbotarren zelaian. Hogetabi-garren jardunaldiaren ostean, Arratia taldea sailkapenaren hamaikagarren postuan geratu da. Hurrengo partidua Abanto taldearen kontra jokatuko dabe, Las Carreras herriko El Mortuero zelaian, hilaren 23an, arrastiko bostetan.

Euskal Ligan dabilen nesken taldeak be bere atzen partiduan gol partidea sartu eban. Peña Athletic Santurtziren kontrako partidu hau lau eta zero irabazi eben arratiarrak. Zezeilaren hamaseian, zapatuan, izan zan,

Igorreko Urbietan zelaian baita be. Arrastiko sei eta erdietan jokatuzan. Arratiak, jokatutako atzen

hiru patidua irabazi ditu, Peña Athletic Santurtzi, Hernani CD eta Arizmendi KE taldeen kontra, hurrengo hurrengo. Hamazaz-pigarren jardunaldia jokatuta, Arratia taldea sailkapenaren sei-garren postuan dago. Hurrengo partidua Gasteizko Neskak taldearen kontra izango da, baina oraindino ez jakie eguna eta zelaia egokitu.



Arratia futbol taldea Urbietan.

## AIZKOREA

## Atutxa II eta Mugertza II ez dira finalean izango

## Erredakzioa

Gatx eukien aizkolari dimoztarrak eta mutrikuarrak Eusko Label

Binakako Aizkora Txapelketan finalera heltzeako. Izan be, pasea lortzeako Otaegi eta Otañori minutu bi eta 15 segundoko aldea atera behar eutseen, baina Otaegi eta Otaño gehiago izan ziran Mendaron be, hilaren 10ean, eta Atutxa eta Mugertzari nagusitu jakiezan. Irabazleak 23 minutu eta 15 segundoko erre-gistroa egin eben eta Atutxa eta Mugertzak 26 minutu eta 13 segundokoa.

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea

Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte

**\*Kolekzino barria**

**sein**

L. LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296  
SEINMODA. @hotmail.com

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK

Gabe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
Karmela eskolaz zain erakraz

Agine Lehendakaria 11 48140 Igore (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83  
E-posta: unaburu@euzkadi.net

**NAIARA** Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igore  
94 631 52 26

*Los Chopos*  
neurritza egindako armairuak

Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 430 40 94

**Esposizinoa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATEA**  
Instalazio elektrikoak • Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak

Juan de Auriagera 1 Behea 48330 Lemoa  
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

**BIXER TABERNA**

Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**axular**  
kultur elkarriz

Agine Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**indar**  
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
t. 94 655 47 19  
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

**ARKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
**IGORRE**

Emilio Galtia banatzaile ofiziala

**San Miguel**

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloa (Igorre)

AHOLKULARITZA:  
LIGE-LAN ARLOAN

**ZUZENBIDE**

ZERGA ETA DERU KONSTRUKTIBO  
ONDASUN HIGIEZKINEN  
ASIGURATUTAN

Bilbao Arana, 5 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 04 01 - 48140 IGORRE

**Jose Luis Corbacho**

**pintura lanak**

Sabino Arana, 3, 3a Tfnoa: 94-673-70-87  
Igore 48140 Bizkaia Tfnoa: 609-79-40-54

**ekin s.a.**  
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTSU SAREAK  
BASERI ETXAK  
BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK

Iturizt barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: obras@construccioneseekin.com

**Pinturas Arratia**

Javi Morato

Tel. 628 443 992



## PELOTEA

# Lau txapel Zeanuriko pelota eskolearentzat eta Lemoarentzat beste bat

### Erredakzioa

Zeunuri izan da Arratia-Nerbioi E txapelketako irabazle nagusia, 4 txapel lortu zituan-eta Lemoan izandako finalean zezeilaren 16an. Zeanurik Aurreumetxoak, Umetxoak, Umeak eta Nagusiak kategorietan izan zan txapeliduna, Lemoa, barriz, Gaztetxoak kategorian. Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatu eban Arratia-Nerbioi txapelketaren finala. "Egiten dogun balorazinoa oso-oso positiboa da. Bertara ehundaka pelotari, guraso eta ikusle hurreratu ziran eta bai goizeko jardunaldia zein arrastikoa sano ondo egon ziran" azaldu deutso BEGITURI Aitor Erauzkin antolakuntzakoak. Sano giro ona egon zan pelotari eskolen jai handi honetan, eta klub guztien parte-hartzea handia izan zan. Frontoia, bete-beterik

egon zan eta pelotari gazteak onena emoten.

### Emoitzak

Aurreumetxoak: Zeanuri18-Orozko13.  
Umetxoak: Zeanuri18-Orozko11.  
Umeak: Usansolo 10-Zeanuri 18.  
Gaztetxoak: Zomotza 5-Lemoa 18.  
Kadeteak: Zeanuri 12-Orozko 22.  
Gazteak: Zomotza 22-Arrankudiaga 11.  
Nagusiak: Zeanuri 22-Lemoa 10.



Pelota eskoletakoak Lemoako frontoian Arratia-Nerbioi txapelketako finalean.


## MENDIA

# Tontorrerako atzenengo saioa

### Erredakzioa

Zezeilaren 18an zan saiatzekoa Alex Txikon Laila Peak (6.096 m) mendiko tontorra zapaltzen. Eguraldiak hobetu eban eta animauta egozan Txikon eta bere espedizinokideak. Jose Migel Viñas metereologoaren arabera egun horretan "edur gitxi botako dau eta lainoak desagertu daitezke. Haizeak gogor joko dau eta tenperatura  $-26^{\circ}$  inguru izango da tontorrean".

Lortu ezker, Karakorumen ne-



Alex Txikon.

guan egindako lehenengo tontorra izango litzateke.

### Bigarren saiakerea

Hau bigarren saiakerea izango da. Zezeilaren 11n tontorretik metro gitxira geratu ziran Alex Txikon eta bere espedizinokideak. Ilundu egin behar ebala eta itzuli egin ziran.

## ERRUGBIA

# Jokatutako partidu biak galdu dabez Arratiko Zekorrek

### Ainhoa Duñabeitia

Urte hasikera honetan Zekorrek partidu bi jokatu, eta biak galdu dabez. Momentuz igoera fase honetako sailkapenean 5. postuan dagoz 6 puntugaz.

### Hasikerea ez da ona izan

Zezeilaren 9an jokatu eban lehenengo norgehiagokea Arratiko Zekorrek San Txisme zelaian, Sport Tavem RC errioxarren kontra. Entsegu bi lortu ebezan etxeok, baina errioxarrak sei. Azken emoitzea 12-32 izan zan.

Urteko bigarren partiduan Mult Rio. Miera CRS izan eban aurre Zekorrek, La Albericia (Santander) instalazioetan, zezeilaren 17an. Partidua 11 jokalarigaz hasi eban Zekorrek. Hasi eta segiduan Mul. Rio. Mierakoak entsegu bat lortu eban, markagailuan aurretik jarritz.

Baina partidua hasi eta 15 minutu eta gero epaileak amaierara emon eutsan norgehiagokeari, Arratiko Zekorrek hiru lesionau euki ebazan eta. Partidua amaitu barik gelditu zan, eta norgehiagokea galdu egin eban gureak.

Hurrengo partidua hilaren 23an izango da, San Txismen, Gemika Rugby B taldearen aurka, eguerdiko 13:00etan.

### Gazteak hobetotxo

Gaztetxoak hobeto dabiz. Bigarren postuan dagoz, norgehiagokara bi jokatu eta bat irabazi eta beste galdu dabe.

Urtilaren 12an jokatu eban 2. faseko bigarren partidua, Zaisa Irun RTren kontra eta errepasso polita emon eutsien Zekortxuak. Nagusi izan ziran partidu osoan. Azken emoitzea, 39-0. Hurrengo norgehiagokea martian jokatuko dabe, data zehazteko dago oraindino.

**Ametzola Landetxea**  
Ametzola 1-1  
48499 Zeberio  
629 429 870  
www.ametzola.net

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**bbk**

**HERRIKO BENTĀ**  
HOSTAL  
HERRIKO PLAZA  
40142 ARTEA (Bizkaia)  
Tel. 94 631 72 56

# Oparitu BEGITU-lagun!

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun \* Deitu 649 979 115 telefonora eta otzara bete kultura oparituko deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegi eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarrizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

35€, 55€  
edo 75  
Euroren truke

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO





## IRAKURLE KLUBA

## Karlos Linazasoro, "Bertan goxo" Bedian

## Erredakzioa

Bediako Irakurle Klubak Karlos Linazasoro idazlea konbidatu dau zezeileko sesinora, idatzi dauan atzenengo liburuaren gainean berba egiteko. Hilaren 27an izango da topaketea, arrastiko 19:00etan, liburutegian.

Linazasoro (Tolosa, 1962) karrera luzeko euskal idazlea da; hainbat eta hainbat liburu argitaratu dauz genero guztietan: poema-liburuak, haurrentzako ipuinak, narrazioak edota nobelak. Sari ugari jasotakoa be bada: Ignacio Aldekoa Saria, Donostia Hiria edota 2001eko Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria.

Azken lana, *Bertan goxo* (Elkar, 2012), ipuin luze edo nobela labur lez klasifikatu lei, bertan umore absurdoa nagusitzen da, bere obra gehienetan lez. Liburuak ume baten ikuspegitik kontetan dauz aitaren enterradore-negozioaren gorabeherak.

Irakurle Klubak hile birik baten antolatzen dau euskal literaturako idazle batez saioa. Dobaneko ekitaldiak dira eta irakurzaileak aukera daukie idazleagaz berba egiteko eta aurkezten dauan liburuaren gaineko itaunak egiteko. Saioak Julen Gabiria herriko idazleak bideratzen dauz.



Liburuaren azala.

## ZARZUELEA

## Zarzuela zaleak zitea daukie Lasarten

**Gran Antología de la Zarzuela**

Santos Ariño - Carmen Aparicio - José Antonio Moreno  
DIRECTOR MUSICAL: LUIS A. GAMARRA - PIANISTA: MARIO LERENA

**SÁBADO 23 FEBRERO 20:00h**

**Lasarte Aretoa Igorre**

Masa Coral del Ensanche BILBAO

Facebook icon, YouTube icon, QR code

Laugarrenez egongo dira Igorren Masa Coral del Ensanchekoak.

## Erredakzioa

Zarzuela lan ezagunenak batu ditu Masa Coral del Ensanche *Gran Antología de la Zarzuela* eta Arriaga antzokian eta beste antzoki batzuetan arrakasta handia izan ondoren, Igorrera ekarriko dabe antologia hau. Ikuskizuna, hilaren 23an, arrastiko zortziretan Igorreko Kultur Etxean izango da.

Ez da kuru honek Igorren zarzuelea kantetan dauan lehengo aldia. Aurreko urteetan, *El Caserio*, *Gavilanes* eta *Katuska* zarzuelak eskeini ditu, aretoa ia betez.

## 1903tik musika lirikoak kantetan

"Masa Coral del Ensanche, zarzuela, antologia eta kontzertu lirikoak egiten 100 urtetik gora emon dituan musika erakundea da. 1903an hasi eban erakundeak ibilbidea, Bilboko Zabalgunearen inguruko baserri baten. Lokal horreetatik hamaika zuzendari, musikari, bakarleri eta abesbatza pasau dira" Igorreko Kultur Etxeko arabera.

## ANTZERKIA

## Bertsolaritza eta antzerkia buztartzen dituan lana Igorren

Korrika Kulturalaren programazioaren barruan, *Balitzen hioa* izeneko ikuskizuna ikusteko aukerea dago martiaren 2an arrastiko 20:00etan.

## Erredakzioa

Antzerkia eta bertsolaritza nahasten ditu lan honek. "Gai bardin baten inguruan lau bertsolari idazten ipini doguz. Bakotxa bere aldetik. Guk testu horreek hartu eta *Balitzen hioa* osatu dogu. Hitzen balioa topau gura genduan... eta hizkiak lekuz mobidu jakuz" azaldu dabe Begirada taldekoak.

Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegia dira testuak egin dabezan bertsolariak, librean, baina ardatz bakarraren bueltan: hitzen balioa. Eta idazki horreek dira *Balitzen hioa* izeneko antzezlanaren oinarria.

Eszenalekuan Esti Curiel, Leire Ugarte eta Hodei Unzueta izango dira, Ainhoa Alberdiren zuzendaritzapean.

## Euskerazko arte eszenikoak bultzatzen

Euskal kultura bultzatzea eta euskera gizartearen esparru guztietara eroatea beti izan dirala euren helburuak diene AEK-koak. "AEKren konpromisoa hamaika egitasmo eta ekitalditan gauzatu da orain arte eta horreetako bat da Korrika Kulturala be". Izan be, AEKren ustez, "egokia eta bidezkoa da Korrikari esker lortzean diran diru baliabideen zati bat onura ekonomikorik ez dakarren baina gizarteonura bilatzen daben ekimenetan inbertidutea. Ondorioz, euskerazko arte eszenikoak bultzatu, euskal sortzaile barriari bidea egin eta Korrika Kulturalan zein bestelako kultur ekimenetan jentaurrean aurkeztu daitekezan lanak sortuten lagundutea dauka helburu Korrika Kulturalak".

**BALITZEN HIOA**

"Trikitan, ikuratu egiten ninduten hitzek. Hitzegia aire-territorio librea zen".  
(Ainhoa Agirreazaldegia)

"Edozein esandezake edozein? Nola ulertuko dut orduan hitzek zer esan nahi duten? Hitzak trofeoak baldin badira... sormazko perla ahoan... Horrek ematen dit min. Mina. Ulertzen?"  
(Maialen Lujanbio)

"Hitzak egin gaitu eta aldi berean geuk sortzen dugu hitza."  
(Andoni Egaña)

"Lehen baziren bost duroko hitzak. Baina gero zuloa egin zireten bost durokoak, eta gubdiago balio zuten. Zuloa zireten bost durokoak eta zuloa zireten bost duroko hitzak."  
(Uxue Alberdi)

Gai bardin baten inguruan lau bertsolari idazten jarri ditugu. Bakotxa bere aldetik. Nahieran. Guk, testu hоек hartu eta balitzen hioa osatu dugu. Hitzen balioa aurkitu nahi genuen... eta hizkiak lekuz mugitu zaitzigu.

**BALITZEN HIOA**  
ANTZELAN HIOA  
BULTZEN HIOA

**ANTZERKIA**  
Antzerkiak: Esti Curiel, Leire Ugarte eta Hodei Unzueta  
Zuzendaria: Ainhoa Alberdi  
Testuak: Ainhoa Agirreazaldegia, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Uxue Alberdi  
Musika: Maialen Lujanbio, Oskar Zabalgia

**BILBAO**  
BILBO  
Lanku

Martiaren 2an izango da antzezlan hau.



## LEHIAKETEAK

### Igorreko Jai Batzordeak jaietako kartel lehiaketea antolatu dau

#### Erredakzioa

Igorreko jaietako kartela egiteko lehiaketea antolatu dau Jai Batzordeak. Parte hartu ahal izateko Igorrekoa izan behar da eta apirilaren 26a baino lehenago aurkeztu behar da proiektua udaletxeko Erregistroan. Kartelean "Igorreko

jaiak 2013. Bagilaren 7tik 16ra" testua derrigor agertu behar da. Lehiaketeak 200 euroko saria dauka.

Epaimahaiak maiatzaren 2an emongo dau jakitera bere ebaztia. Irabazlea adin txikikoa bada, Igorreko komertzioetan materiala erosteko 200 euroko bonoa jasoko dau.

## LEHIAKETEAK

### Zugan Ni Jaialdiaren kartel lehiaketea

#### Erredakzioa

Markeliñe konpainiak sortutako Zugan Ni proiektuak, antzerki munda nerabeai hurbildu gura deutse. Proiektua 13 eta 18 urte bitarteko neska-mutlai zuzenduta dago. Ikasturte osoan zehar gazteak euren antzezlanak sortu eta taularatu egiten dabez eta kurso amaie-

ran publikoaren aurrera erosten dabez Zugan Ni Antzerki Jaialdian. Arratia Institutuko ikasleak parte hartzean dabe proiektu honetan.

#### Kartel lehiaketea

Gazteen artean sormena oraindino gehiago bultzatzeko, ikasturte amaierako Zugan Ni Antzerki Jaialdiaren kartela egiteko lehiaketea

antolatu dabe Markeliñekoak. Bertan 12 eta 18 urte bitartekoak hartu ahal dabe parte, kartelean "Zugan Ni Antzerki Jaialdia 2013" testua agertu behar da derrigor eta martiaren 15a baino lehen bialdu behar da euskarri digitalean zuganni@markeline.com edo markeline@markeline.com helbidera. Kartelik onenak tablet bat izango dau saritzat.

## BERTSO-AFARIA

### Herrirak bertso-afaria Artean

#### Erredakzioa

Arteko Herrirak presoen aldeko bertso-afaria antolatu dau martiaren 1erako. Afaria gaueko 21:00etan izango da ludotekan. Horren aurretik arrastiko 19:00etatik aurrera trikitilari eta pandero joleakaz herritik trikitipoteoa egingo da. Bertsolariak, Ekaitz Larrazabal "Katxo", Fredi Paia eta Gorka Ostolaza "Potxis" izango dira eta gai jartzaile beharretan Irati Astondoa ibiliko da.

Afaria "herriko eta inguruko benetako produktu ekologikoak egindakoa izango da, ardaa naparra izango da, baina hau be

ekologikoa" dinoe antolakuntzakoak. Langabetuak 15 eta besteak 20 euroan erosi ahal izango dabez txartelak Igorreko Axular Herriko Tabernan eta Arte Herriko Bentan. "Arratiarrak saio honetara animau gura doguz" dinoe.



Fredi Paia.

## SAGARDOTEGIA

### Areatzako gazteak txotx!

#### Erredakzioa

Areatzako Laminetxe Gaztetxe-koak Hernaniko Alzueta sagardotegira urtekera antolatu dabe martiaren 2rako. Izena emoteko azken eguna zezeilaren 22a da.

Beti oso ondo pasetan dabenez, utero antolatuten dabe sagardotegirako urtekera sasoi honetan "Gaztetxea 2007an sortu zan eta harrezkerotik utero joaten gara. Baita sortu aurretik be. Izan be, orduan, koadrila batzuk alkartuta joaten ginan sagardotegira" azaldu deusie BEGIRURI Laminetxe-koak.

Bazkaria bakarrik ez dabe egingo Areatzakoak Hernanin. Baz-

kalostean, herritik bueltatxo bat egiteko aukerea be izango dabe.



## ERAKUSKETEAK

### Argazki erakusketea Igorren

#### Erredakzioa

Zuri-baltza nagusi izango da Igorreko Kultur Etxean martiaren 1etik 26ra arte egongo dan argazki erakusketan. "Emakumea eta kirola" izeneko erakusketa honetan, andrak 1975. urte inguruan egindako kirolaren erretratuak jasoten dira. Gizartean, andrak gogor lan eginda lortu dabe euren espazioa, eta kirolean be holantxe izan da. Antolatzaileen arabera, "erakusketa honek iraganaren isla gozoa izan gura dau, topaleku atsegina oroitzapenak bizteko".

## DUNBA

### Eskola-umeak eta prensa idatzia



#### Ikastetxeetako normalkuntza teknikarien taldea

Betidanik izan da alfabetizazioa eskolearen ardatzetariko bat. Jakina da eskoleari jagokola eskola-umei irakurten eta idazten irakastea, eta danok daukagu oraindino hurbileko norbait, izen-apelliduak idazteko kapaza izan arren, asko gehiagorik ezin dauana.

Izan be, derrigorrezko esko-

laratzea lorpen handia izan da. Bai, horixe. Irakurten eta idazten eskolan ikasten da, baina gaur egungo gizartean gaitasun horreek eskolatik kanpo behar doguz uneoro. Egun guztietan, gure etxeetara heltzean jakuzan ha maika dokumentu, propaganda, karta, egunkari edo aldizkarik zer dinoen eta zelan erantzun behar deutsegun funtsezko jakintza da. Horregaitik, irudika ezina egiten

jaku, besteak beste, karta, curriculum, dokumentu, faktura, mezu edo eretxi bat irakurteko eta idazteko gai ez dan profesionala.

Etorkizun hurbileko mediku, kazetari edo albaitari izango diran Arratiako lehen hezkuntzako ikasleai 2004ko urtean, itaundu geuntsen dokumentu mota guzti horreetatik, zenbatek irakurten zituen egunkariak/aldizkariak. Orduan ikusi genduan ikasleen ia-ia hiru herenak, etxean bertan jaso arren, ez ebela informazio, denbora-pasa eta ikasketa iturri garrantzitsu hori aprobetxetan.

Formatu batean edo bestean, ordea, Arratiako ikastetxeetan aspaldidanik landu da prensa tailerra. Gogoratzea baino ez dago Arratia Institutuak *Arrana aldizkaria* hasi eban garaia, gerora jarraitzen dauana; Lehen Hezkuntzako ikastetxeak gehitu eutsien *Txilina* gehigarria eta azken urte honee-

tan bertako ikastetxe guztiak, hamabostean behin bakotxak osotuten daben *Dunba* atal hau.

Edozelan be, aurten, 2013an, lehen hezkuntzako ikasleai barriz itaun bardina egin deutsegunean, emoitzak guztiz alderantzikatu dirala ikusi dogu. Gaur egun askoz gehiago dira egunkariak eta aldizkariak irakurten dituen ikasleak. Ezin jakin ikastetxeen ahalegina ala gurasoen esfortzuen ondorioz gertatu dan. Ezin esan ziurtasun osoz emoitza horreek epe luzera mantenduko diran ala ez.



Zelangura be, datu pozgarria da hori bai gurasoontzat eta baita hizkuntza-irakasleontzat be. Guraso-alkarte, inguruko kultur eragile, udaletxe eta ikastetxeen arteko lankidetzan gure etorkizuneko profesionalen gaitasunak hobetuten goaz.





## AGENDEA

## ZEZEILAK 19

## ARTEA

17:00etan, "Lan bila internet bidez" ikastaroa (euskeraz). Kultur Etxean.

## ZEZEILAK 20

## LEMOA

*Stretching* saiorako izen emote eguna. Ganzabal Mendi Taldearen lokalean.

## ZEZEILAK 21

## ARANTZAZU

17:00etan, etxeko beharren ikastaroa hasten da, erabilera anitzeko lokalean.

## ARTEA

17:00etan, "Lan bila internet bidez" ikastaroa. Kultur Etxean.

## DIMA

19:00etan, Bardintasan Mahaia osotuko da KZ Gunean.

## IGORRE

19:00etan, Igorretarron Batzarra Kultur Etxean.

20:00etan, zine kluba *Henry Fool* (Hal Hartley 1997). Lasarte Aretoan.

## LEMOA

18:30ean, Lemoako Haur eta Gazteen XII. Ipuin Lehiaketaren sari banaketea ludotekan. Inaki Carretero ipuin kontalaria.

## ZEZEILAK 22

## BEDIA

Barreterapia, Defensa Personal, Patinaje eta Elikagaiak manipuletako ikastaroetan izena emoteko epea zarratuten da.

18:00etan astegoienerako urtekerea Baqueira Beretera eskiatzera. Udaletxe ondoan.

## IGORRE

19:30ean, hileko azken barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak *Stretching* saioa (luzamentuak).

19:30ean, hileko azken

barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

## ZEBERIO

20:00etan, hileko azken barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

## ZEZEILAK 23

## IGORRE

Jubiladuen alkartearen Aranda de Duerorako urtekerako izen emoteko azken eguna. Alkartearen bulegoan (urtekerea martiaren 4tik 5era arte).

20:00etan, Masa Coral del Ensanche *Gran antologia de la zarzuela*. Lasarte Aretoan.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak umeen urtekerea. Ollargan-Basauri. Malmasin (362 m).

## ZEZEILAK 24

## IGORRE

17:00etan umeentzako zinea *El alucinante mundo de Norman*. 19:30ean, zinea *La vida de Pi* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Arratiako mendiak eta herriak 9. zeharkaldia. Indusi-Indusi. Korrikaren mendi ibilaldia.

19:00etan, Argia emonaldia. *La deuda oculta* dokumentala Elizondoko Kultur Gunean.

## ZEZEILAK 25

## AREATZA

17:00etan, Nutrizioa eta bizimodu osasuntsua ikastaroa udaletxean. Maiatzaren 6ra arte astelehen eta eguaztenetan.

## ZEZEILAK 26

## AREATZA

19:30ean, Uxue Alberdiren *Aulki jokoa* liburuaren gaineko tertulia Emakume Forokoen gelan.

## ARTEA

17:00etan, "Lan bila internet bidez"

ikastaroa. Kultur Etxean.

## ZEZEILAK 27

## ARANTZAZU

17:00etan, etxeko beharren ikastaroa, erabilera anitzeko lokalean.

## BEDIA

19:00etan, Karlos Linazasoro idazlea egongo da *Bertan goxo* bere liburuaren gainean berba egiteko.

## IGORRE

19:00etan, Arratian Lan eta Bizi bilgunea aurkezteko batzarra Igorreko Kultur Etxean.

## ZEZEILAK 28

## AREATZA

19:30ean, Kirol eta Kultur Batzordeak antolatuta, zineforuma *La mujer del cuadro* (Fritz Lang 1944).

## ARTEA

17:00etan, "Lan bila internet bidez"

ikastaroa. Kultur Etxean.

## IGORRE

20:00etan, zine kluba *The girl from monday* (Hal Hartley 2005). Lasarte Aretoan.

## MARTIAK 1

## AREATZA

22:00etan, Lobo & Carmine The Quiet Corner tabernan.

## ARTEA

Astegoienerako, Ezkaraira eski urtekerea AKKTK antolatuta.

19:00etan, triki-poteoa. 21:00etan, bertso-afaria ludotekan Herrirak antolatuta. Bertsolariak: Ekaitz Larrazabal "Katxo", Fredi Paia eta Gorka Ostolaza "Potxis".

## DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

Herrirak antolatuta. Kontzentrazio ostan preso eta errefuxiatuen inguruko ekitalditxoak.

## LEMOA

Astegoienerako, Luz Ardidenera eski urtekerea Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta.

## MARTIAK 2

## AREATZA

11:30ean, sagardotegira urtekerea. Eleizako portikuan. Fraka Zuri Gazte Asanbladak antolatuta.

## IGORRE

20:00etan, *Balitzen hioa* Kultur Etxean.

## LEMOA

Korrika Lipduba. 17:00etan batu. 17:30ean, kokapena. 18:00etan, lehenengo grabaketea. 18:15ean, bigarren grabaketea. 22:00etan, kontzertuak On eta Nik Khaos-egaz.

## MARTIAK 3

## BEDIA

Alto Campoora umeentzako eski urtekerea. Gangurenek antolatuta.

## IGORRE

17:00etan umeentzako zinea. 19:30ean, zinea Lasarte Aretoan.

## MARTIAK 4

## IGORRE

08:00etan, Igorreko Jubiladuen Alkateak txarriboda jai berezia Aranda de Dueron. Martiaren 4 eta 5ean.

**IGORREKO JAI EK HERRITIK HERRIARENZAT!**

GAZTE UME GIZON EMAKUME

**ZER GURUZU JAETAN!**

ERDU, PARTE HARTU ETA EGIN ZURE PROPOSAMENAK MARTITZENERO, 19ETAN KULTUR ETXEAN (LUDOTEKAN ALBOAN)

HELDU

facebook icon

IGORREKOBATZORDEA@GMAIL.COM

## Jai Batzordeak beharreen

Udako jaiak prestatzeko batzordeak hasi dira beharreen gure eremuko hainbat herritan. Holan, Bedian, zezeilaren 18an egin eben lehenengo batzarra eskoletan, 19:00etan; Igorreko batzordea, martitzenero batzean da 19:00etan Kultur Etxean, ludotekearen ondoan, eta Lemoako zezeilaren 13an egin eben urteko lehen batzarra udaletxean, 19:30ean eta hurrengo eguaztenetan, hilak 20, barriz batzeako geratu ziran.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## SALGAI

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

## SALGAI

Haretzeko arasa ederra salgai. 139zm zabal, 50 sakon, 193 altuera. Ikusgai dago Elejalde 10ean, Igorren. 800 €. 615 731 182.

## AUTOA SALGAI

Fiat Punto 1.2 Dynamic 5 ateduna. 8 urte ditu. ITVa 2014ko bagilera arte pasauta, 672 762 066 (Gaizka).

## DANERIK

## BASERRIA ALOKATU GURA

## DOGU

Alokairuan dagoan baserri edo etxea gura dogun bikote bi gara. 685 707 176 Eider.

## ETXEA ALOKATZEN DOGU

Alokairuan dagoan pisu baten bila gabizan neska arratier bi gara. Alaitz eta Maider 652 722 698.

## UMEAK JAGOTEN DODAZ

Arrastiko ordutegian umeak jagon edo

klase partikularrik emoteko prest nago. Kotxeduna. Interesdunak deitu zerbaki honetara 600 759 434 (Naiara) Telefonoa.

## UMEEN ZAINTZAK

Umeakaz esperientzia daukan neska bat zuen seme-alabak jagoteko prest dago. kotxeduna (Pili 686 728 843).

## GARAJEA ALOKAIURUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorreko erdigunean. 659 395 911. Luis.

## BIZIKLETEA GURA DOT

Errepidean ibilteko bizikletea gura dot. Zaharra eta merkea bada, barria eta karua baino hobeto. Idatzi: sautuolabarri@gmail.com helbidera.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com- era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Zarzuelea ikusteko.

Albaro Legarreta (Igorre)  
Iker Garcia (Areatza)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Balitzen hioa* antzezlanerako.

Mertxe Ortuzar (Zeanuri)  
Ander Astondoa (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Alderdi. Letra izena. 2.- Arto-urunez egindako opila. Letra bat. 3.- Sendagile. 4.- Bokala. Madarikazino. 5.- Errubidua. Letra bat. Neodimioa. 6.- Ahul. Oxigenoa. 7.- Itxaropen. 8.- Letra bat. Andrazkoen izena. 9.- Emea ez dana. Hitler.

### GOITIK BEHERA

1.- Astatoa. Baseleiza. 2.- Birritan, Afrikako tanbor antzekoa izentatzeko onomatopeia. Ogirako otzera. Letra bat. 3.- Garaua. Birritan, sehaskak mobitzean egiten dauan zaratearen onomatopeia. 4.- Gizentasun. 5.- Frantziako hego-mendebaleko departamentua. Musika instrumentua. 6.- Bigarren letrea. Kenketearen ikurraren izena. Bizkaiko mendia. 7.- Sekula. Oinazea adierazoteko.



Topau zazpi erremintaren izenak.

Z	E	R	R	A	K	U	R	A	N
G	U	A	D	I	R	A	T	U	Z
E	S	L	A	B	A	G	A	R	I
D	U	I	A	E	Z	K	I	A	N
O	R	K	E	G	A	Z	T	N	O
M	U	E	T	R	A	G	A	I	R
O	S	T	R	A	L	I	Z	K	E
G	R	A	N	E	R	A	L	R	U
I	K	K	A	R	E	D	I	U	B
K	A	S	T	E	L	A	U	H	A
A	R	T	A	Z	I	A	K	I	R
B	O	R	O	K	A	H	A	B	E
U	Z	G	E	M	A	I	L	U	A
R	L	A	S	U	N	A	J	A	N
E	G	I	A	Z	E	M	U	K	O

# AKIMIKO

Aitziber



**OPEL**

Ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estuñoz, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Tel: 631 33 30 - 631 31 31  
Fax: 631 36 15

Tel: 94 631 60 06 • e-mail: info@arrotz.com

**ARA OTZ**

Landareen 0 Jabetzen!

Barrio Ugarana 2 de - ADAR Dena - Bizkaia www.arrotz.com

**expert** **ARRATIA**

E posta: expertarratia@cordevi.com  
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55  
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

**GARANTXE**  
Autoeskola

TEORIA BUSKARAZ ZEIN ERDARAZ

Balazteak: 41, A, B, C, D

Lehendakari Agirre 31  
Ttxoa: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@eskola.net

**GALANTA**

Banatik jarzteko  
Zugandik sano hurbil

Lehendakari Agirre 25, Igorre  
Telefonoa: 94 631 90 08

**RUGBY**  
**TABERNA**

• Egin zaitez bazkide!  
• 09:30etik zabalik  
• Asteburretan pintxo bereziak

**ARRATIKO ZEKORRAK**

arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gas

Aireztatze sistemak • Aire zurgatze zentralizatuak  
Tutak kontrolatuzko berrikuntza eta mantentze lanak

Igorreko Industrias, Pab. 37  
Tel. Fax 94 673 62 76  
619 736 616  
48140 Igorre Bizkaia

**Gure Ikastetxeak**

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Bigarren Hezkuntza, Baxilergoak, Hezkuntza zikloak



## EXAIXU TALDEA

## Kalerarock-erako "Borrokalaria kalera" kantuaren bersinoa egin dau Exaixuk

Unai eta Iñigo Santosek, Illart Gumuziok, Irkus Antxiak, Ander Varelak, Erlantz Espartak eta Alex Maguregik Exaixu taldea osotuten dabe, Exkixu taldeari tributoa egiteko sortutako taldea. Exaixuk batez be Bizkaian jotzen dau, baina ez bakarrik: Donostiako jaietan, Gasteizko Gaztetxean eta Laudion be jo dabe arratiarrak.

### Irati Urien

#### Zelan sortu zan taldea sortzeako ideia?

**Illart Gumuzio:** Gernikako jai batzuetan Lemoako taldekideak koadrilan urtenda, txosnetan tragu pare bategaz "Exkixun zeozer egin behar da", "bai ondo egongo litzateke...". Hortik tiritu, falta ziran taldekideak batu eta hasi egin ginan.

**Irkus Antxia:** Hori izan zan apur bat abiapuntua, hor hasi zan asuntua. Pentsetan genduan zeozer egin behar zala Exkixuri tributoa egiteko. Arratian kontzertuak emon dauz gainera. Igorreko institutuan be famaduak izan orduko jo eben kontzertu bat, ikasbidaiarako. Akorduan daukat egun hori; gaztea nintzan, 16 urte inguru, eta baegoan tipo bat kantetan eta jantzan mobimientu arraroak egiten.

#### Orokorrean Exaixuko taldekide guztiontzat izan da erreferente Exkixu, ezta?

**I.A.:** Bai. Niri Zornotzako Iñigo Ibarretzek esan eustan Exkixura joateko. Baina beharrean nenbilen eta ezin nintzan joan. Orduan, bigarren aukerea emon eustenean bigarrenez ezetzik ez esatearren baietz esan neban.

#### Zelakoa izan da Exaixuren ibilbidea? Zelan baloretan do-

### zue?

**I.G.:** Gustura. Abesti batzuk hartu genduzan, horreek landu eta horixe. Gero kontzertuak urteten joan dira. Lehenengo Lemoako Gaztetxean, bete-beteta egoala jo genduan. Eta besteak bakarrik etorri dira. Azken baten Exkixu nahiko fama euki eban bere egunean Euskal Herrian eta publikoak Exkixuren gogoa euki dau zeozelan esatearren. Jentea gogoz egoan.

**I.A.:** Egia esan esplotau barik moduan egoan.

#### Zegaitik Exkixu eta ez beste bat? Gustu kontua?

**I.A.:** Exkixuk euki ebana suberte txarra be izan zan. Famea hartzean hasi zan denporea aurrera joan ahala. Gero atxiloteten kontua etorri zan eta hor ebagi egin behar izan eben taldeagaz. Guk pentsetan dogu hori musikalki injustizia bat izan zala eta hori gogoratu arazoteko be bada Exaixu.

**I.G.:** Gainera Exkixuk eukiten ebana zan ez zala musika bakarrik. Gero Euskal Herriagazko atxikimientu handia euki izan dau eta mitologia be tratetan izan dau talde moduan. Erakargarria da.

**I.A.:** Inportantea be bada albokearen asuntua. Albokea praktikamente desagertuta egoan. Lau persona egozan jotzen ebenak: Igorreko Txilibrin eta Arteako Leon; eta gero, bere



ikasle kontauak. Exkixuk bultzadea emon eustan, soinu hori interesgarria zala erakutsi eban. Eta orduan jentea hasi zan jotzen ikasten.

#### Lehenengo kontzertua Lemoako Gaztetxean izan zan. Zelako akordua daukazu?

**I.G.:** Gaztetxea beteta egon zan. Bete-beteta. Jenteak abesti piloa abestu eban gugaz. Eszenalekutik laino baten gainean lez bajatu ginan. Geuk be hurrengo kontzertuetarako esaten genduan "hau bardindutea gatxa izango da... espektibak bajatu beharko doguz".

#### Tributo bat dan neurrian, talde originalagazko erresponsabilitate bat lez izango da ezta?

**I.A.:** Bai. Guk ez daukagu asmorik eurak baino askoz be hobeto joteko. Gura doguna da kantuak ateratea, ahal danik eta ondoen egitea...

**I.G.:** Eta gaurko gazteai Exkixun moduko talde batek belarria egitea, ez? Izan be gure edadekoak Exkixu taldearen barri euki dabe baina gaztetxoagoak Esne Beltza eta holakoak Exkixuren barririk jakin barik gelditu leitekez.

#### Kantu guztiak Exkixurenak dira?

**I.G.:** Kalerarock-eko abestia egin dogu. "Borrokalaria kalera" abesti herrikoiaen bersino bat da, eta gero jotzen dogu ACDCren bersinotxo bat. Kontzertuak apurtxo bat luzatuteko. Beste guztiak eurenak dira.

**I.A.:** Gero hasi gara grabaketa batzuk egiten gure kontura. Zer barriak eta egiten.

#### Kalerarock 2013. Zelan jakin zenduen horren barri?

**I.G.:** Antolatzaileetako bat hartu emonetan ipini zan geugaz eta komentau euskun idea zein zan. Gure

aldetik, Kalerarock moduko festibal baterako aldarikapen horregaz eta aparte daukan oihartzunagaz ezetz esatea ez jakun burutik pasau be.

**I.A.:** Hilebetean egin zan dana, nahiko arin. Bideoklipa be badaukagu.

**I.G.:** Eurek esan euskuen bersino pentsau ebela "Borrokalaria kalera" rena egin eta gero hortik aurrera geure esku itxi eben dana. Bialdu eutsegunean bozeto moduko bat gustura gelditu ziran entzun ebenagaz. Gero estudioa sartu ginan.

**I.A.:** Esan behar da taldean Santos anaiak dagozala eta honeek edozer gauzagaz kapazidade handia daukiela gauza barriak aterateko. Gero bateria be hor daukagu, bertsolaria, trikitilaria... azken baten talde guztiak aportetan dau zatitxo bat eta atoan osotu dogu kantea.

#### Barri pozgarria izan behar zan. Euskal Herrian milaka talde egon eta Exaixuri eskatutea.

**I.A.:** Bai, baina egia esan, kantea egiteaz pendienteago egon ginan, guri zergaitik esan euskuen pentsetan baino.

**I.G.:** Itzelezko ilusinoa izan zan. Azken baten Kalerarock Euskal Herri mailan dagoan jaialdi potenteetako bat da, potenteena ez esatearren.

#### Bideoklipa be esperientzia barria Exaixukoontzat.

**I.G.:** Bai, Santos anaiak Larregin dagoz eta Larregigaz egin dabe bideoklipen bat edo beste, baina beste guztiontzat barria izan da. Gustura egon ginan. Goiz oso baten egin genduan gure zatia.

**I.A.:** Arraroa da. Musika barik playback-a egiten da eta.

#### Aurrera begira ze asmo? Diskorik?

**I.G.:** Ez, asko jota orain abesti bat

edo egingo dogu baina orain ez dot uste danik gure lehentasunetako bat. Orain kontzertuak emongo doguz baina ez dogu astegoienero jo gura. Exkixuk 26 abesti inguru daukaz bere erreperitorioan eta astegoienero kontzertuak jo eta jo ibili ezkeru jentea erre ahal dogu eta gu be erre ahal gara eta hori ez da gure asmoa. Hilean pare bat kontzertugaz oso gustura egongo ginateteke.

**I.A.:** Atzenean gure planteamentua kontzertuak guretzat izatea da. Joan eta disfrutetako, baita jenteak be. Hori da, lehenengo guk disfrutau eta gero geugaz jenteak disfrutau daiala. Inor erre barik.

#### Babesdun eta ilusinodun jentearen erantzuna ikusi dozue?

**I.G.:** Bai. Batez be hasikeran, Alexen, gure abeslariaren abotsa, Exkixukoarenaren oso antzekoa da eta askok hariduraz esaten euskuen "joe, abotsa bardina da ba-ta!". Jentea kontzertuetan gustura ikusten da.

#### Zein da Exaixukoon helburua?

**I.G.:** Gaztetxoai Exkixuren legadua pasetea. Eta Exkixuk transmitiduten ebana gaur egun be plazaratzea.

**I.A.:** Eta gazteteetan eta egoten diran jaialdietan gure aportazinotxo egitea, kobrau barik. Azken finean daukagun indarra eurei emotea, gitxi bada be.

#### Abeslari biak Alex daukie izena. Ikusiko ete doguz inoz biak batera taula gainean?

**I.G.:** Polita izango litzateke. Guri be ilusinoa egingo leuskigu eta nik uste berari be bai orain dala 20 urteko abestiak abestutea.

**I.A.:** Berari guri baino gehiago, akaso. Kasualidadez Kalerarock-en guk jotzen dogu eta gero Gatibuk. Batek jakin zer pasau leiteken.

# www.begitu.org

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com

